



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



Gradu Amaierako Lanaren Arautegia (GALA)

Haur Hezkuntzako Gradua
Lehen Hezkuntzako Gradua
Gizarte Hezkuntzako Gradua

2014/2015 ikasturtea

(Eskola Batzarrak 2014ko martxoaren 24an onartua)

AURKIBIDE OROKORRA

ZIOEN AZALPENA	2
1. artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.....	2
2. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA	3
3. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSARAKO DEIALDIAK	3
4. artikulua. ZUZENDARIA, ESLEIPENA ETA LANERAKO GAIA AUKERATZEA.....	4
5. artikulua. EBALUAZIO EPAIMAHAIA	5
6. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA	6
7. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.....	6
Azken xedapena. INDARREAN JARTZEA	7

ZIOEN AZALPENEA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, III. kapituluaren 12. art., 3. atalean, Gradu ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du *“ikasketa horietan gradu amaierako lan bat egin eta defendatu”* beharko dela, eta 7. atalean honakoa gehitzen du: *“Amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango ditu, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko da eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko da”*. Ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen, eta, beraz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du, bere autonomia baliatuz.

Uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak, 1393/2007 Errege Dekretua eraldatu egiten duenak, irizpide eta prozeduretan arintasun eta eraginkortasun handiagoa emateko beharrezko doikuntzak barneratu zituen. Zehazki, 6. artikulua *Kredituen aitortpena eta transferentzia* delakoaren 2. puntuaren 3. paragrafoa berridatzi zen: *“Nolanahi ere, ezingo dira aitortu gradu amaierako lanetako kredituak”*.

Testuinguru honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Amaierako Lanak modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko helburuz, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasketen Antolamendurako Errektoreordetzak 2011ko martxoaren 21ean erabaki zuen UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia argitaratzea, Gobernu Kontseiluak 2011ko martxoaren 10ean onetsita (2011ko apirilaren 19ko EHAAn). Berori onetsi ostean, arautegiak izan duen aplikazioaren esperientziaren argitara, zenbait aldaketa egin beharra ikusi da, eta hain zuzen ere horretarako onetsi du UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak indarrean dagoen GAL Arautegia (2012ko maiatzaren 16an, EHAako 2012ko ekainaren 19koan argitaraturiko 2012ko maiatzaren 21ko Erabakia). Bertan, arau orokor batzuk ezarri ziren, nahiz eta titulazio bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak kasuan kasuko ikastegietako batzarrek aztertu eta behar bezala arautu eta argitaratu beharko dituzten. Hortaz, arautegi honek, orokorra izanik, malgutasun nahikoa emango dio ikastegi bakoitzari prozedura desberdinak orokorrean erabili edo horiek ikastegiko espezifikotasunei egokitzeko.

1. artikulua. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1.1. Arautegi honek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan ematen diren Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako Graduetan zehaztutako Gradu Amaierako Lanak (GAL) definitu, egin, defendatu, kalifikatu eta tramitatzeko irizpideak jasotzen ditu.

1.2. Arautegi honen edukia, bestek beste, ikasleen ebaluazio sistemaren, kredituen aitortpen eta transferentziaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

2. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN IZAERA

2.1. GALa gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin beharko du zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko ditu.

2.2. Graduari¹ lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arloko datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da GALa, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.

2.3. GALa defendatu eta ebaluatu ahal izateko, ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela egiaztatu egin beharko da eta, hortaz, GALari dagozkion kredituak izan ezik titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.

2.4. GALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera, baldin eta bestelakorik zehaztu ez bada Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan.

3. artikulua. MATRIKULA ETA DEFENTSARAKO DEIALDIAK

3.1. GALaren matrikula egin ahal izateko, ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztiak gaindituta izan behar dira nahitaez, eta lanak dituen kredituen araberrako (12 kreditu) prezio publikoak ordainduz egingo da matrikula, ikastegiak horretarako zehaztutako epearen barruan.

3.2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako eskola egutegian zehaztutakoarekin bat eginez. GALa unean uneko ikasturtean ezarritako deialdietan defendatu ez edo gainditu ez duten ikasleek matrikula egin beharko dute berriro hurrengo ikasturtean.

3.3. Ikasleek GALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute aurrematrikulan eta matrikulan.

3.4. GALak hilabete hauetan defendatuko dira: ekainean/uztailean, irailean/urrian eta otsailean (ikusitako dagokion ikastertuko egutegia).

3.5. GALaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardurara izango da akta behar bezala bete eta ikastegiak zehaztutako prozedurari jarraiki administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, ikastegiko zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzea.

¹ Ikus graduari lotutako gaitasunak GALren Gidan.

4. artikulua. ZUZENDARIA, ESLEIPENA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA

4.1. GALa kasuan kasuko graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide diren irakasleek edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoek zuzenduko dute.

4.2. GALa pertsona batek baino gehiagok zuzendu ahal izango dute.

4.3. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahal izango dituzte GALak, baldin eta graduan eskolak ematen dituen sailen bateko kide den edo irakasten den ikastegiari atxikita dagoen zuzendarikide bat badago.

4.4. Ikasleak GAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den beste erakunderen batean egiten badu, praktiketako hitzarmen baten barruan, unibertsitatez kanpoko pertsonak zuzendu ahal izango dute GALa, baina kasu horretan 4.1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.

4.5. Irakaslearen ardura izango da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla bermatzea, baita lanaren jarraipena egin eta hari buruzko txostena idaztea ere. Txosten hori GALaren zuzendariak sinatu eta kalifikatu beharko du, eta GAUR plataforman utzi.

4.6. Sailek edota ikasleek proposatuko dizkiote gaiak Ikastegiko Batzarrari edo, hala badagokio, hark eskuordetutako batzordeari.

4.7. Ikasleek egindako proposamenak, behar bezala arrazoituta egon beharko dute ikuspegi teoriko-praktikotik eta Graduari lotutako gaitasunei egokituta, (ikusitako GALArako gai proposamena egiteko Jarraibidea). Proposamen hauek, Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak onartuko balitu, dagokien sailera bidaliko dira, sailek zuzendaria izendatu dezaten.

GALA kolaborazio beka bati lotuta egiteko asmoa duten ikasleek, Ikastegiko Batzarra edo hark eskuordetutako batzordearen aurrean aurkeztuko dute gai proposamena zuzendariaren izenarekin batera, betiere, 4.1. puntuan adierazitakoa betez.

4.8. Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, hala badagokio, sail bakoitzak gradu desberdinetan zuzenduko dituen Gradu Amaierako Lanaren gaien zerrenda eta kopurua onartu eta argitaratuko du, ikasturte akademiko bakoitzeko matrikula garaia hasi baino lehen, zein hizkuntzatan egingo den ere zehaztuz.

Proposatutako gaiak Graduan lortu beharreko gaitasunekin koherentea izan beharko dira.

Graduko sail bakoitza gutxienez Ikastegiko Batzarrean onartutako erabakiaren arabera dagokien GAL kopurua eskaini beharko du ikasturte bakoitzean.

GALA egiteko eskaera guztiak betetzen ez badira, Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, hala badagokio, sailen hutsuneak baliatuko ditu GALa egin eta defendatzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleen eskaerak onartuak izan daitezkeen bermatzeko.

4.9. Sailen GALArako gaien zerrenda, horretarako prestatuko den gune birtualean argitaratuko da, zehaztutako epearen barruan, ikasleek gaien azterketa egin dezaten, GALaren gaiaren aukeraketa egin aurretik, matrikula egiteko momentu berean.

4.10. Ikasle bati GALAren gaia eta zuzendaria esleitu ahal izateko, gutxienez, graduako 168 kreditu gaindituta izan beharko ditu, eta ikasketa plana bukatzeko eskatzen diren irakasgai guztietan matrikulatuta egon behar du nahi eta nahi ez, GALA bera izan ezik.

4.11. Ikastegiak proposatutako GALAren gaiaren eta zuzendariaren aukeraketa egiteko lehenetsua ezartzeko irizpideak, matrikula egitera deitzeko erabiltzen diren irizpide berberak izango dira (ikus Graduko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketen gestiorako arautegia 27. Art.).

4.12. GALA eta zuzendaria ikasturte baterako esleituko dira gehienez ere; epea amaitzean, eta bi aldeak ados egonez gero, esleipena berritu ahal izango da.

4.13. Ikastegiko Batzarrak edo hark eskuordetutako batzordeak, hala badagokio, ikasle bakoitzari gai bat esleitzeko prozeduraren eta aurreinskripzioa formalizatzeko epeak zehaztuko ditu, baita matrikula egin eta lana defendatzeko epea ere (ikus GALAren Gida).

5. artikulua. EBALUAZIO EPAIMAHAIA

5.1. Ikastegiko Batzarrak edo, hala badagokio, eskuordetutako batzordeak ezarritako moduan eratuko dira ebaluazio epaimahaiak, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren GALA guztien gaiak kontuan hartuta. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetan.

5.2. Gradu bakoitzeko sailen arduradunek ikastegiak eskainitako GALen defentsarako beharrezkoak diren epaimahaiak osatzen direla bermatuko dute (Ikastegiko Batzarrak onartutakoaren arabera). Epaimahaiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan egongo direla bermatu beharko da.

5.3. Epaimahai bakoitza hiru kidek eta, gutxienez, ordezeko batek osatuko dute; guztiak izango dira gradua irakasten den ikastegiko irakasleak.

5.4. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira, eta horrela jardungo dute beti. Horiek izendatzeko irakasle kategoria eta antzintasuna hartuko dira kontuan.

5.5. Epaimahaietako kideak GALA honako irizpideen arabera izendatuko dira: 1. GALA zuzentzen duen ikastegiko irakasle orok epaimahaietan parte hartu beharko du kide titular gisa; 2. Hala behar izanez gero, graduako IIP taldeko kideren bat arituko da epaimahaikide gisa.

5.6. Epaimahaien izendapena Ikastegiko Batzarrak egingo du defentsarako deialdi bakoitza baino aski lehenago.

5.7. Epaimahaien osaera izendapenaren hurrengo egunean bertan jakinaraziko da.

6. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

6.1. GALaren matrikula formalizatutakoan, ikasleek ADDI artxibo digitalean utziko dute GALA. Hala ere, lana beste bide ofizialen bidez aurkeztea eska dakioko ikasleari.

Epaimahaiko idazkariak kopia elektronikoa bana helarazi beharko die epaimahaikideei, gutxienez epaimahaia osatu eta saioa hasi baino lau egun lehenago.

6.2. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GALA, eta publikoa izango da.

6.3. Tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera, graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango da lana. Nolanahi ere, GALA Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

6.4. Ikasle bakoitzak gehienez ere 15 minutu izango ditu GALaren defentsa egiteko, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, ohar eta iradokizunei erantzun beharko die, gehienez ere 25 minutuz.

6.5. GALak ADDI artxibo digitalean gordeko dira ikasleak lana gainditu eta hurrengo ikasturtearen amaierara arte. Epe hori amaitzean, salbu eta errekurtsoren bat ebazteke baldin badago, suntsitu egin ahal izango dira.

6.6. Gradu amaierako lana ez bada defendatu ezarritako epeen barruan, "Ez aurkeztua" kalifikazioa emango zaio.

7. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

7.1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren edo zuzendarien txostena eta kalifikazioa ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du ikasketen gidan GALari buruz argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraiki.

7.2. Ikasleak lana gainditzin ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. GALaren zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

7.3. Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta horri dagokion kalifikazio kualitatiboa ere adieraziko da:

Ez aurkeztua (EA)
0 - 4,9: Gutxiegi (G)
5,0 - 6,9: Nahikoa (N)
7,0 - 8,9: Oso ongi (OO)
9,0 - 10: Bikain (B)

Deialdiren batean defentsa eskubideari uko eginda, "Ez aurkeztua" jarriko da.

Ohorezko matrikula aipamena egin ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei. Aipamen hori gehienez ere ikasturte bakoitzean irakasgai honetan matrikulatutako ikasleen ehuneko bosti eman ahal izango zaie. Epaimahaikideek hala proposatuz gero, Batzarraren Batzorde Delegatuak emango du matrikula.

7.4. Epaimahaiaren bukaerako nota epaimahaikide guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da. Kideek emandako puntuazioen artean hiru punturen edo gehiagoren aldea badago, kalifikaziorik altuena eta txikiena baztertuko dira.

7.5. GALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira, baina, epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioren lehenengo berrikuspena epaimahaia berak egingo du eta ondoren Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena. Ebazpen horren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari.

7.6. Artikulu honen aurreko puntuetan zehaztutako gainontzeko egoera guztietarako Gradu Amaierako Lanaren Irakaskuntza Gidaren Ebaluazioan adierazitakoa beteko da.

7.7. Nolanahi ere, GALaren kalifikazioak urriaren 31 baino lehen agertu behar du matrikulatutako ikaslearen espedientean, gai honi dagokion atalean.

Azken xedapena. INDARREAN JARTZEA

Arautegi hau Eskola Batzarrak onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.